

Senideak-Gureak elkarteak “guztion laguntza” eskatu du dispertsioa bukatzeko

■ “Ezberdintasun ideologikoak ahaztu” eta kontzentrazioa joateko dei egin dio jendeari ■ Kontzentrazioa, ostiralean 20:00etan, Gudarien plazan.



Senideak-Gureak elkartearen enkartelada.

SENIDEAK-Gureak elkartearen enkartelada denboratan ari da Euskal Herriko herrietan enkarteladak egiten, presoak eskubideak errespetatzea eskatzeko. Bihartik aurrera enkartelada beharrezko kontzentrazioak egiten hasiko dira, eta presoak Euskal Herrira ekartzea izango da aldarrikapena.

JENDEAREN BABESA
Ideologia ezberdinetako jende-

aren babesa lortu nahi du Senideak-Gureak elkarteak bihurtik aurrerako kontzentrazioetan. Horregatik zentratu dute beren indarra presoak Euskal Herriratzeko “Euskal gizarteak bat egiten du aldarrikapen horrekin, eta denon babesarekin lortu litekeela uste dugu”.

“HAMABOST URTETIK GORA” HORRELA
Hamabost urte baino gehiago

dira Euskal presoak dispertsatu zituztena. *Senideak-Gureak* elkarteak bidalitako prentsa oharrek dionez, “astero, ixiltasunean, giza karabana bat ateratzen da, auzo herri eta hirietatik (...), dispertsioaren zigor gehigarria medio”.

Elkarteak dio Euskal gizartearen gehiengoak bat egiten duela presoak Euskal Herrira ekartzearekin, eta dispertsioa bukatzeak herri honen egoera aldatuko duelakoan daude.

Batzuetan “politiko, sindikatu eragile sozial eta kulturalak bat egin dute gurekin” adierazi du *Senideak-Gureak*-ek. Aldarrikapenarekin bat egitea nahikoa ez dela dio, ordea, eta jendeari hileroko kontzentrazioetara joateko deia luzatu dio.

‘ETXERAT’ ELKARTEA
Oraintsu Ipar eta Hego Euskal Herriko preso senitartekoak talde bakarrean bildu dira eta *Senideak-Gureak* izena hartu. Hemendik aurrera izen bakarra izango du elkarteak: *Etxerat*. Elkarte berriaren Aurkezpen publikoa datorren igandean egingo da, Gastei-zen. Hala ere, ostiraleko kontzentrazioa *Etxerat* elkartearen izenean antolatua da. Bihar, arratsaldeko 20:00etan Gudarien plazan. □

ZINEA BITERIN

‘South Park’ gaur, ostegunetako zinekluba bukatzeko

■ Arratsaldeko 20:00etan izango da.

BI ostegunetan jarraian pelikula botatuzte Biteri kultur etxean. Gaurkoak itxiko da azaroko zine klub txikia. Aurreko bietan ez da ikusle gehiegi izan, lehenengotik bigarrenera jendeak gora egin badu ere.

AURTENGOZ BESTERIK EZ
Aurtengoz gaurkoarekin bukatuko da ostegunetako zinekluba. Ostiral, larunbat eta

igandeetan jarraituko du hemendik aurrera zineak Biterin.

SOUTH PARK: MARRAZKI BIZIDUNAK
Fama haundia hartu duten Marrazki bizidunak dira. Lau gaztetxok pelikula bat ikusten dute gurasoen baimenik gabe, eta jarraian herri guztiko gazteek. Horren bueltan izugarria sortzen da herrian, azkenean gerra sortzeraino. □

MUSA -ELKARTE ARTEKOA-

Gure Txoko-Elizatzko, finala gaur Ur-Mian

■ 3-4garren postua Sta Barbara eta Etxeberri jokatu dute ■ 20:30etatik aurrera.



Etxeberri elkarte eta Jubilatutakoak aurrez-aurre.

AURTENGO Elkarte arteko Mus Txapelketa iritsi da azken enbidora. Gaur bi bikoterik onenek jokatu dute finala, Ereñotzuko Ur Mian elkarteak, eta larunbat iluntzean izango da sari banaketa. Finalaurrekoak astelehenean jokatu ziren: Gure Txokok 4-

2 irabazi zion Sta Barbarari eta Elizatzok 4-1 irabazi zion Etxeberriari.

HOGUITABI BIKOTE
Aurtengo edizioan inoiz baino bikote gehiago izan dira. Hamaika elkartetako bina bikote hartu dute parte. □

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Doberak 2002ko egitasmoak aurkeztuko ditu bihar

■ Dobera Euskara Elkarteak bihar egingo du batzarra bazkideekin. Datorren urteko egitasmoak aurkeztuko ditu. Arratsaldeko 19:00etan da Biteri.

PLENOA

Hamabi puntu eztabaidatuko dira gaurko plenoan

■ UDALAK ohizko plenoa egingo du gaur. Hamabi puntu izango dira eztabaidagai. Betiko moduan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.



Galarreta gaina z/g - HERNANI



GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- ⌚ 1. partidua: ZEBERIO III - ETXEBERRIA III / ZALAKAIN - BADIOLA
- ⌚ 2. partidua: EZKURRA - LIZASO / ZEBERIO II - ALTUNA I - EIZAGIRRE
- ⌚ 3. partidua: Promesen torneoa: AGIRRESAROBÉ - AIZPURUA II / MATXIN III-URKO
- ⌚ 4. partidua: ALTUNA II - URRETABIZKAIA II / ELIZALDE - AUZMENDI

MAHAI TENISA

Easo-Hernanik 4-0 irabazi du Estatuko Ligan eta Autonomikoan

- Estatu mailako taldea sailkapenean goiko postuetan dago At. San Sebastianekin
- Galdu egin dute probintzi mailako bi taldeek.

LAU huts irabazi dute Easo-Hernaniko Estatu eta Autonomika mailako mahai tenis jokalariek, asteburuan. Estatuko bigarren mailan Zaragozako Argon taldearen kontra jokatu dute. Bereziartua, Gereñu eta Kim Plak aisa hartu zituzten menpean *mañoak*. Azken hiru garaipenek sailka-

peneko goi postuetara eraman dute Easo-Hernani.

AUTONOMIKAN ERE INDARTSU


Donostiako Luberrri taldearen kontra jokatu du Autonomika mailako taldeak, eta ez da kolorerik izan. Armentia, Odriozola eta Corradok, astebu-

ruan irabazita, laugarren postura igo dute taldea.

Lehen eta bigarren probintzi mailako taldeek galdu egin zuten 4-3 eta 6-1. Aipagarria Julene San Casimirok egindako lana, oraindik infantila izanda hortzak erakutsi baidizkien Irungo taldeko jokalaria nagusiagoei. □

Kontzentrazioa Beasaingo atentatuaren kontra

- Astelehenean izan zen, ‘ETA EZ’ lemapean, EA, EAJ, PSE-EE eta EB deituta.



Bi ertzainen kontrako atentatua gaitzesteko kontzentrazioa. (Argazkia: Biyok)

JOAN den astelenean 100 pertsona inguru bildu ziren Atsegindegin ustez ETA-k bi ertzainen kontra egindako atenta-

tua salatzeko. Kontzentrazioa Hernaniko EA, EAJ, PSE-EE eta EB-k konbokatu zuten. Bestalde, Ertzaintzak za-

baldu du bi hernaniar izan direla trafikoa zuzentzen ari ziren bi ertzainen kontrako atentua egin zutenak. □

KIROLA -ESKOLARTEKO EMAITZAK-



Elizatzxo eta Langileko hockey jokalariek partiduko atsedendian, beren makil eta guzti.

ERRUGBIA	TALDEAK	SASKIBALOIA	TALDEAK	BOLEIBOLA	TALDEAK
Benjaminak	Elizatzxo B 1-Urumea 3	Alebinak. Neskak	Urumea 20-Larramendi 0	Alebinak	Murumendi 2-Elizatzxo 1
Benjaminak	Elizatzxo A 2-Langile B 2	Alebinak. Neskak	Langile 23-Elizatzxo 2	ESKUBALOIA	TALDEAK
Benjaminak	Langile C 0-Langile A 3	Alebinak. Mutilak	Inmaculada 16-Herrera 24	Alebinak	Agape A 1-Elizatzxo A 1
FUTBOLA	TALDEAK	Alebinak. Mutilak	San Patricio 15-Langile A 46	Alebinak	Elizatzxo B 1-Urumea 1
Infantilak	Urumea 1-San Benito 2	Alebinak. Mutilak	Oleta 2-Langile B 102	HOCKEYA	TALDEAK
PELOTA	TALDEAK	Infantilak.	Langile 12-Loiola A 67	Benjaminak	Langile A 1-Langile B 0
Alebinak	Langile C 5-Langila A 1	Infantilak.	H. Cruz 20-Inmaculada 30	Benjaminak	Elizatzxo 4-Langile C 1
Alebinak	Langile B 1-Elizatzxo B 5				
Alebinak	Urumea 5-Elizatzxo A 3				

OLIO BILTZEA

Sukaldeko olio erabilia gaur bilduko dute ferian

- Sukaldeko olio erabilia feri kalean biltzen dute, birziklatzeko. Hileroko bigarren eta azken ostegunetan izaten da, 16:00etatik 19:30etara. Urbieta kalean, frontoi ondoan.

BERTSOLARITZA

Lujanbio eta Egaña, Aranon

- Larunbatean bertso afaria izango da Aranon. Maialen Lujanbio hernaniarra eta Andoni Egaña zarauztarra izango dira kantari. Eukal Herriko Bertsolari Txapelketarako zein tenpletan dauden ikusteko aukera ezin hobea.

Donostiako Maratoi Txikian Ixiar Urdangarin aurrena

- Maratoian Ibon Iriondo izan zen hernaniarretan onena, Jon Garmendia bigarren.



Ibon Iriondo Kronika agurtzen, Behobian, Mirakruzen gora.

IGANDEAN jokatu ziren Donostiako Maratoia eta Maratoi Txikia. Hernaniarrek Maratoi Txikian egin zituzten postu onenak. Emakumeetan Ixiar Urdangarinek irabazi zuen. Ez dago denborarik, antolakuntzak arazoak izan dituelako.

Bestalde, Maratoian, Ibon Iriondo izan zen hernaniarretan

onena. Ibonek 2:58:07 egin eta 216 garren postuan sartu zen. Bigarrena Jon Garmendia: 3:00:10. Hirugarrena, Haritz Iraola Albizu: 3:09:52. Laugarrena, Franzisko Jabier Galan Jimenez: 3:12:24. Denborekin kejak izan dira, zenbaiten ustez, maratoian ere txipak funtzionatu ez zuelako. □

MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak osorik botako dituzte

- Molotoff irratia Bertsolari txapelketako saioak botako ditu astearte eta ostegunetan, osorik. Gaur 14:00etatik aurrera Hendaia saioa botako dute eta hurrengo astearte eta ostegunetan Bilbo eta Tolosako saioak. Bestalde, gaur 12:00etan Tamer Birawi eta bere senarrarekin Arabe ikastaroari buruz ariko dira eta arratsaldeko 17:00etan Burrumbada gazte saioa izango da. □

HERIOTZAK

Josefa Apaolaza Otaegi

Asteartean hil zen 86 urte zituela

Rafael Esnaola Albizu

Asteazkenean hil zen 70 urte zituela

Elizkizunak, gaur, 19:00etan Juan Bataiatzailea Parrokian

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 557750
- ▶Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Irigoien Elkano 2 ☎ 943 552087
- ▶Gauetz: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42. ☎ 943 361774